



2 asteartea

09:00etan.- Errezil sagar, fruitu eta barazkien XXI. lehiaketa.
Gernika pasealekuko frontoian.

19:00etan.- Beasaingo Paperak bildumaren 18. zenbakiaren aurkezpena
Izenburua: "Beasaingo mugak". Igartza jauregian.

5 ostirala

18:30ean.- Erraldoi eta buruhandien irteera txistulariek lagunduta.
Udal Bibliotekan.

22:00etan.- Antzerkia: "Etzi antzezlan" Dar-Dar Produkzioak.
Usurbe Antzokian.

6 larunbata

10:00etan.- Bertako jeneroen azoka berezia eta ardo azoka.
Antolatzailea: Beasaingo Odolki Kofradia.
Gernika pasealekuan eta San Martin plazan.

12:00etan.- Odolki-dastatzea eta lehiaketa, XXVI. Edizioa.
Antolatzailea: Beasaingo Odolki Kofradia.
Gernika pasealekuan eta San Martin plazan.

19:00etan.- Oskarbi taldearen kontzertua.
Igartza jauregian.

7 igandea

08:00etan.- Mendi-irteera Finalista eguna (Murumendi-Garin).
Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

19:00etan.- Beasaingo XVIII. Argazki-rallyko sari-banaketa eta
aurkeztutako lanen ikustaldia, Batzar aretoan.
Antolatzailea: Argizpi Argazki Elkartea.

BEASAINGO III. MENDI ASTEA 8tik 14ra

Ordua: 19:30ean
Lekua: Udal Batzar Aretoan
Antolatzaileak: Arrastaka Mendi Taldea eta Aitzgorri Mendizale Elkartea.

Azaroak 8, astelehena
Urtean zehar egindako ekintzak. Arrastaka Mendi taldea.

Azaroak 9 asteartea
Urtean zehar egindako ekintzak. Aizkorri Mendizale elkartea.

Azaroak 10, asteazkena
Felipe Uriarte "Sheshé-ren herrialdean".

Azaroak 11, osteguna
Pedro Garcia "Everest 2010".

Azaroak 12, ostirala
Alberto Zerain "Ghogoriren bi aurpegiak".

Azaroak 13 eta 14, larunbata eta igandea
Eskalada praktikak. Antzizar kiroldegiko rokodromoan.

9 asteartea

09:30ean.- Haur zinea eskolaumeentzat (1): "Ponyo".
Usurbe Antzokian.

14:45ean.- Haur zinea eskolaumeentzat (2): "Ponyo".
Usurbe Antzokian.

10 asteazkena

17:30ean.- Ipuin kontaketa: Lopotolin eta Ipuinfin, bi lagun eta hiru
ipuin. Berritsu ludotekan.

13 larunbata

19:00etan.- "Eskolania del Orfeón Pamplonés". Igartza jauregian.

14 igandea

08:00etan.- Mendi-irteera Urederra errearen sorburura.
Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

18 osteguna

18:00etan.- Mahai ingurua: Asmubeko XX. urteurrena.
Igartza Jauregian.

18:30ean.- Proiektzioa: Eneko eta Miyuki - Hego Amerika Tandemnean.
Kutxaren eskaintza. Udal Euskaltegian.

18:30ean.- Musika Eskolako Banda eta txistulariak Santa Zeziliaren
oroimenez. Gernika Pasealekuko frontoian.

21:00etan.- Filme proiektzioa: "Latcho drom". Antolatzailea: Sustraiez blai.
Usurbe Antzokian.

19 ostirala

20:00etan.- Antzerkia: Vaya semanita. Usurbe Antzokian.

22:30ean.- Antzerkia: Vaya semanita. Usurbe Antzokian.

23 asteartea

18:30ean.- Hitzaldia: Emakumea, ama eta monja, Franko garaian.
Antolatzailea: Asmube. Udal Batzar aretoan.

24 asteazkena

17:30ean.- Ipuin kontaketa: Txanogorritxu can speak English/
Txanogorritsuk ingelesez badaki. Berritsu ludotekan.

19:00etan.- Proiektzioa: Flisch Haitzen hitza.
Kutxaren eskaintza. Udal Euskaltegian.

28 igandea

08:00etan.- Mendi-irteera: Larraona-cueva los cristianos-Urbasa.
Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

30 asteartea

09:30ean.- Haur zinea eskolaumeentzat: "Malabar printzesa"
Usurbe Antzokian.

ERAKUSKETA.

Lanegunetan: 19:00-21:00 Jaiegunetan: 12:00-14:00 / 19:00-21:00

4tik 14ra

Jubilatu en etxean egindako eskulanak.
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

18tik 28ra

Haitiko lurrikararen ondorena. Antolatzailea: Herriak Elkarlanean.
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.



11 osteguna

21:00etan.- "A propósito de Elly" filmaren proiektzioa. Usurbe Antzokian.

25 osteguna

21:00etan.- "Utopía" filmaren proiektzioa. Usurbe Antzokian.

Beasain

egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2010eko azaroa 24



Beasaingo Udala



L.G. SS-1284-2008

3740-010

Paper birziklatuan egina



Aisia eta hezkuntza uztartuz


4 HELDUEN HEZKUNTZA
IRAUNKORRA. Instalazio
berriak estreinatu dituzte
Jose Miguel Iturrioz kalean.

6 ALKOHOLIKO ANONIMOAK
Elkartea 30 urte
daramatza Beasainen
lanean.

9 EGUNEKO ESNEA
Geltoki ondoan esne makina
jarriko da, Iztueta elkartearen
eskutik.



Puedes colgar tus fotos en
www.guregipuzkoa.net
Algunos beasaindarras ya lo han hecho.
Éstas son algunas de las fotos que han subido.
Animatu zaitetz!



Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



Beasainen udazkenak aparteko lotura izan ohi du kulturarekin. Aurten ere zuen eskura izango dituzue musika, dantza, bertso, antzerki etab. Horren aparteko adibide dugu pasa berri den Jazpana Fest jaialdia, gazteen gozamenerako.

Azoka bereziak ere izango du bere tarte, geure geurea dugun Odolki lehiaketarekin batera. Egunotan Odolkaren aitzakiz eta Odolki Kofradiako lagunei esker herriaren izena hor ibiliko da bolo-bolo airean eta paperean.

Aurten "Beasaingo paperak" bildumak ere, beste ale bat dakarkigu. Gure herriko mugen nondik norakoak azaltzen dituen.

Ohikoez gain, bertako beste elikagai bat izango dugu aurrerantzean herriaren, Eguneke Esnea. Lazkaomendiko Iztueta Elkartek beraien baserriko esnea jarriko dute salgai Barrendainen. Ainitze eta Marijok baserriko atak ireki dizkigute, behiak nola gobernatzen dituzten eta eguneke esnea zein osasungarria den azaldu dute.

Berrikuntza hitza gure enpresen bizi-raupenerako hitzetik hortzera dabil-

KULTURARI LOTUTA

kigun honetan, hara hor Iztueta Elkartea bide horretan aintzindari.

Herritarrei arreta egokia eskaini asmoz, Udaletxea ere eraberritzen ari da. Ongizate, Udaltzaingo, Euskara, Kultura eta Gaztedia Sailak bulego berri eta zabaloak izango dituzte. Horretarako Ludo-teka tokiz aldatu da, plazapean gune eraberritua hartuz. Arratsaldero, plazape berriak babesa eskaintzen die beren aisiaz gozatu ahal izateko.

Hezkuntza Sailak baditu Goierriin Hel-duen Hezkuntzarako gelak. Ehundaka goierritar hartzen ditu, bere garaian Oinarrizko Hezkuntza jaso ez zutelako, jakin mina asetu nahi dutelako edota lanerako ziurtagiriak lortzeko. Gune berria egokitu die Udalak Jose Miguel Iturrioz kalean. Bertako ikasle eta irakasleen go-goetak eta asmoak agertzen dira Beasain egunez egun udal aldizkariko ale honetan.

Ixilpean baina etengabe lanean ari diren Alkoholiko Anonimokoek ere beren ateak ireki dizkigute. Alkoholaren zurrumbilaoan sartuta daudenei zein laguntza eskaintzen dien azalduko digute. Jendearen aurrrera bolondres egunean agertu ez baziren ere, benetako bolondres lana egiten dute. Batzuk gorriak pasatakoak dira alkoholak harrapatuta eta esfortzu handiarekin lortu zuten askatasuna besteei eskaini nahi die.

Astigarretako auzotarrek urtero bezala San Martin jai alaituak prestatu dituzte eta herritar guztiei gonbitea pasa die ospakizunetarako.

Asmube Elkartea ere ezin ahaztu. Azaroan 20. urteurrena beteko dute eta lokal egokiago bat egokituko zaiela berretsi nahi diet.

Tabakoaren aurkako legearen aurrean, zein da zure iritzia?



Jose Ramon Iriondo

"Urtarrilean utzi nion erreteari. Lehen asteburuetan purutxo batzuk erre ohi nituen baina legea indarrean sartu behar zuela eta, kitto, pentsatu nuen. Ezta batera! Erretzaile porrokatua ere ez nintzen eta ez dut gehiegi faltan botatzen. Leku itxietan erretzen ez uztea ondo iruditzen zait; orain, kanpoan... parkeetan-eta, ez dakit ba!, eserleku batean eseri eta ezin erre izana... ez dakit hori hain ondo dagoen".



Nicolas Paglilunga

"Yo no fumo y me molesta que se fume en los bares, y al ser padre todavía más. Si voy con la cría selecciono los sitios en los que no se fuma, aunque lo mejor es quedarse fuera. Me parece bien que prohiban fumar en bares y en parques públicos. Es un hábito de invasión. Yo nunca he fumado y no conozco cómo está el tema en otros países, pero estoy de acuerdo con la medida".



Ibon Barriocanal

"Yo dejé el tabaco hace seis años. Era de paquete y medio, y me costó muchísimo dejarlo. Pero no entiendo muy bien que los que nos han vendido el tabaco toda la vida, ahora nos lo prohiban tan tajantemente. Debería de haber zonas diferenciadas para fumadores y no fumadores. Hay bares como para repartir. A mí no me molesta el tabaco, aunque cuando tienes niños pequeños andas con más ojo pero... La cosa me da un poco de pena, todo son prohibiciones."



Irene Martínez eta Hintza

"Zerbait erretzen dut, ez asko. Orokorrean, ondo ikusten dut tabakoaren aurkako lege hau. Batik bat, toki itxietan ke handia bil-tzen delako eta noski, kaltegarria da. Uste dut ez dela gehiegi kostatzen kan-das pora ateratzea erretzera. Parkeetan eta, umeengatik ez erretzea ere ondo derit-zot. Baina uste dut legea, rengatik inork gutxik utziko zuela erretzea. Agian gero, zailtasunengatik jendeak utziko du tabakoa, baina orain arte, ez".



Andoni Barandiaran

"Gauza bat da niri iruditzen zaidana eta beste gauza bat nire lanbidearentzat ona edo txarra den. Ni erretzailea naiz, baina ondo iruditzen zait debekatzea taberna barruetan. Orain, tabernariok arduratuta gaude zeren eragina izango du horrek. Ez dakit handia edo txikia, baina eragin bat izango duela, ziur. Kezkaturat gaude, bes-terik ez. Urrats logikoa da, ezta? Legea modu askotara egin daitekeela? Bai, baina azkenean..."

[Beasain]
egunez egun

El otoño cultural está en su apogeo. Teatro, música, baile... Los jóvenes acaban de celebrar el Jazpanafest. La cofradía de la morcilla celebrará también su concurso anual y el nombre de Beasain estará más presente en los medios de comunicación.

Puntualmente nos llega una nueva publicación de la colección "Beasain paperak". Esta vez nos detalla los límites del municipio de Beasain a través de sus mojones.

A lo largo del mes de noviembre Iztueta Elkartea de Lazkaomendi va a instalar en la plaza Barrendain un puesto de venta de leche fresca: del caserío a la cocina. El Ayuntamiento ha preparado dicho entorno combinando lo rural y lo urbano. En este número de la revista Marijo y su hija Ainitze nos abren las puertas de su caserío y nos acercan a un producto natural, fresco y de calidad como es la leche que se va a vender junto a la estación de Beasain.

El Ayuntamiento ha construido la nueva ludoteca en los bajos del Ayuntamiento. Los testimonios de los usuarios y de sus padres son significativos. Se ha convertido en un lugar de encuentro agradable y muy apetecido por los niños@s.

También se han construido nuevas aulas de Educación Permanente de Adultos en J. M. Iturrioz kalea. Tanto los profesores como los alumnos manifiestan su satisfacción por las nuevas aulas y sus ganas de aprendizaje.

Los voluntarios de Alcohólicos Anónimos abren con cuidado las ventanas de su asociación y nos muestran el trabajo callado y constante para acompañar a las personas que desean salir del abismo del alcoholismo.

San Martín nos recuerda que en Astigarreta los vecinos en auzolan han preparado unas alegres fiestas a las que nos invitan a todos los beasaindarras.

ASMUBE está de enhorabuena, este mes de Noviembre cumplen su 20 aniversario, siguen con la misma ilusión inicial y es cada vez es más notable su presencia como asociación de mujeres en las actividades culturales y sociales del municipio. Me ratifico en la promesa de habilitarles un nuevo local.

Gela berriak, ilusio handiak



Helduen Hezkuntza Iraunkorreko eskolan gauza bakarra behar da: jakinmina. Aurten 600 lagun inguru matrikulatu dira eta ikasturtea ez ezik, instalazioak ere estreinatu dituzte.

Jose Miguel Iturrioz kaleko eraikineri lekualdatu berri da Helduen Hezkuntza Iraunkorra, Euskaltegia bezala. Bailara mailako zerbitzua denez, Lazkaoa, Ormaiztegia eta Ordiziara ere zabaltzen da eskaintza. Arratsaldeetan mugimendua sekulakoa da. Lau gela erabat betetzen dira. Bertan batzuk hizkuntzak ikasten dituzte, beste batzuk DBHko titulua ateratzeko asmoz joaten dira eta badira gai ezberdinak jorratzeko eskaintzen den aukerari heltzen diotenak ere, hala nola, geografia, literatura, historia, e.a. Sekula ez da berandu ikasteko. Baldintza bakarra jakinmina izatea da. Asun Etxaniz zuzendariak dioenez, azken bi urteetan ikasle aldetik igoera nabarmena izan dute. "Krisiaren eragina antzeman dugu. Arratsaldeetan, batik bat, emakumezkoak edota jubilatuak etorri izan dira, baina orain, Enplegu Erregulazio Espedienteak edo langabezia egoera dela-eta, zenbaitek denbora libre gehiago du. Lehen eskola uzten zutenak lanean hasteko arazorik ez zuten, baina orain bizi dugun egoeraren aurrean, 18 eta 24 urte bitarteko jendea hona etortzen da DBHko titulua ateratzeko aldera edo hizkuntza bat ikastera. Iazko ikasturtean, esaterako, 40 bat lagunek eskuratu zuten DBHko titulua. "Bi talde osatu ziren, inoiz ez bezala. Eta aurten ere beste bi izango ditugu".

Etorkinak ere gero eta gehiago ditugu. Derrigorrezkoa zaie HHlra etortzea, zeren askok eta askok ez dute tutik ere ulertzen hasieran. Marrokiarrak, esaterako, gizonezkoek aise ikasten dute baina emakumezkoak, asko, etxean egoten direnez hizkuntza ez dakite". Azkenean, zuzendariaren hitzetan, klaseetan, integrazio lan bat ere egiten da. "Hemengo ohiturak eta kultura irakasten dizkiegu, oso aberasgarria da etorkinekin lan egitea, esperientziak konpartitzen direlako". Izan ere, ikasteaz gain, aisiari ere bere tarte ematen diote, irteerak eginez. Sagardotegira tartean behin bai, behintzat.

Asun Etxaniz,
Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zuzendaria.



Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zenbait irakasle.



Amparo Monroy

"Nunca es tarde para aprender"

"Iaz hasi nintzen HHlean. Egutero bi orduz etortzen naiz eta denetarik egiten dugu. Orain informatikarekin hasiko gara. Pertsonalki garatzeko bidea ematen du eskolak. Lehen ikasitako gauzak nik ahaztuta ditut eta hemen gogorarazi egiten dizkidate. Ordiziatik bost emakume etortzen gara. Inoiz ez da berandu ikasteko. Denei gomendatuko nieke. Lehen lana egiten nuen eta orain, berriz, ikasteko erabiltzen dut denboraren zati bat".



Marga Merino

"Ona da buruari lana ematea"


"Llevo cuatro años en EPA. Me gusta venir. Además, es bueno memorizar cosas. Ayuda a tener la mente en marcha. Si no, nos volvemos unos comodones, por lo tanto, creo que es bueno hacer trabajar a la mente. Por otra parte, los profesores se adaptan muy bien a nuestras necesidades y explican los contenidos de una manera muy sencilla".



Mercedes Rodríguez

"Txikitik ez nuen eskolara nahi adina joaterik izan eta orain, denbora dudanez, ikasi egin nahi dut"

"De pequeña no tuve la oportunidad de ir mucho a la escuela, y ahora que tengo tiempo, deseo aprender. Y el simple hecho de estar con otras personas también te enriquece. Tengo ilusión por aprender. Es un privilegio. Veo lo que he aprendido cuando cojo los cuadernos de 2004 y miro los primeros dictados que hacía. Además, ahora también hablo mejor el castellano porque yo he vivido 30 años fuera. Hay personas que no vienen por vergüenza y es una pena".



Bogdan Stefan

"Aita ere ikaslea izana da eta berak animatu ninduen"

"Soy de Rumanía y llevo viviendo aquí, en Lazkao, seis meses. Me enteré de la escuela por mi padre, porque también ha sido alumno de EPA. Fue él quien me animó. Voy aprendiendo poco a poco, lo llevo bien, pero claro... y el euskera? Pues, todavía es más difícil...".



Ana CZUAIK

"Euskaraz eskerrik asko eta arratsalde on esaten ikasi dut"

"Llevo aquí, en Euskadi, tres meses. Soy rumana. Y la verdad es que esto es más bonito que Rumanía. Estoy contenta, porque es fácil integrarse. La gente es amable. He aprendido a decir "eskerrik asko" y "arratsalde on" en euskera".



Noe Iturri

"Por circunstancias familiares tuve que dejar la escuela y ahora he vuelto a estudiar"

"DBHko titulua ateratzeko bi ikasgai geratzen zaizkit bakarrik. Etxeko egoeragatik, eskola utzi egin behar izan nuen 16 urterekin. Titulu gabe geratu nintzen eta sukaldaritzako ikasketei ekin nien. Eta 23 urterekin berriro heldu nien etendako ikasketei. Orain ilusioarekin hartu dut. Lana ere egiten dut eta HHlra bi gauzak batera egiteko aukera ematen dit".

Beasaingo Alkoholiko Anonimoen elkarte: 30 urte lanean

“Alkoholismoa gaixotasun sendaezina da, baina gelditu egiten da”



Alkoholiko Anonimoen Elkarteko zenbait kide egoitzan.



“Gaur ez dut edango”. Horixe da alkoholismoa pairatzen dutenen eguneroko helburua eta borroka. “Lehenengo zurrutada hartzen ez bada, ez da moz-

kortzen”, diote. Manuel, Yolanda, Pío eta Pedro alkoholikoak dira. Urte luzeak pasa ondoren sufritzen, halako batean Alkoholiko Anonimoetara jo zuten. Edurne eta Isabel, berriz, Al-Anon, gaixoen familien elkarteko kide dira. Orain, guztiak beste gaixo eta familia batzuei laguntzeko daude.

Dicen que el alcoholismo es una enfermedad incurable.

Manuel: Lo es. Yo llevo muchos años sin beber y si no cojo la botella, mi enfermedad no se remueve. Se detiene.

Pío: Una copa es demasiada y puede que cuarenta sean pocas. En cuanto tomamos la primera copa, no tenemos freno.

Manuel: El alcohólico es una persona normal, siempre que no beba. La gente se piensa que aquí se va a encontrar con gente degenerada y no es así.

Pío: El alcohólico no es esa persona que duerme bajo el puente con la botella en la mano.

Manuel: El problema del alcohol sigue siendo un tabú, pero el alcohol mata. Estamos hablando de la vida de una persona. Por eso, es importante que alguien dé el paso de venir a Alcohólicos Anónimos. Si no lo hace el enfermo, tiene que hacerlo algún familiar.

Ése es el paso que hay que dar ¿no?

Yolanda: El paso fundamental es reconocer la enfermedad. Porque normalmente aunque sabes que el alcohol te da problemas, sigues tirando. Yo empecé a los 12 años y hasta los 37 no dí ese paso. Cuando sentía que el alcohol me hacía daño, me decía “pero no, yo no soy alcohólica, yo no voy hablando sola por la calle”. Tienes la mente en una nube. Tu personalidad cambia totalmente y huyes de las personas allegadas, intentas evadirte.

Pío: Yo tardé 15 años en darme cuenta de que no podía manejar el alcohol.

Manuel: Y con el tiempo te das cuenta de cuánto has hecho sufrir a tu familia. Yo bebía y mi mujer se emborrachaba. Ella sufría mucho más que yo.

Pío: Para que una persona sea alcohólica no tiene que beber mucho. Una persona se puede cocer con tres vinos y otra con sesenta. Cuando empiezas a perder el control es cuando empieza el problema.

Edurne: Están obsesionados con que tienen que beber para funcionar.

Isabel: El 90% de los que tienen un problema con el alcohol no vendría nunca a pedir ayuda si no se viera obligado por unas circunstancias concretas.

Manuel: Cuando mi mujer me dijo que yo era alcohólico, lo primero que hice fue coger dos cosas y marcharme. Yo admitía que era borracho, pero alcohólico no.

Isabel: Se vive una situación de tanta irritabilidad, nervios, impotencia y odio, que es un sin vivir. Es un caos. No ves salida alguna.

Manuel: Ningún alcohólico sale a la calle con la intención de emborracharse, pero necesita alcohol. Yo tenía unos temblores que en cuanto tomaba algo desaparecían. El alcohólico también sufre. Yo entré en Alcohólicos Anónimos y fui duro de pelar. Pero a partir de entonces no bebía a gusto, porque sentía remordimientos. Vine asustado, con miedo al qué dirán... pero llegas aquí y te encuentras con gente que habla tu mismo idioma.

¿Cómo son las terapias?

Pío: Hay un moderador que lee un texto y hacemos una rueda. Compartimos nuestras experiencias y al compartir nuestras experiencias se nos van las ganas de beber.

Yolanda: Nadie se vuelve alcohólico porque quiere. Cada uno es un mundo, pero el alcoholismo muchas veces va ligado a alguna carencia de personalidad como la timidez, un talante de mucho genio...

Pío: El alcohólico no se gusta a sí mismo. Se cree inferior.

Manuel: El alcohol es un callejón sin salida. Si no dejas de beber, acabas en la cárcel, en el cementerio o en el psiquiátrico. Alcohólico a medias no puedes ser. O bebes o dejas de beber.

Yolanda: Tenemos un programa de 12 pasos. No solo es dejar de beber, aprendemos a enfrentarnos a nosotros mismos. Aquí primero te sientes halagado porque te escuchan. Eso ya es un consuelo. Aquí descargamos nuestra mochila.

24 horas sin beber. Es el objetivo diario.

Manuel: Nos reunimos los sábados con el objetivo de pasar 24 horas sin beber. El ayer y el mañana no existen.

Pío: Hay que luchar día a día. Te enseñan a decirte a ti mismo “hoy no voy a beber” porque me acuerdo que cuando empecé pensaba, “pero, cómo, ¿toda la vida sin beber?”

Edurne: El enfermo tiene que pensar en estar 24 horas sin beber y los familiares en estar 24 horas con cierta serenidad, porque pierdes toda la confianza.

Isabel: Las personas somos tan volubles que siempre tienes el temor de que vuelva a caer. La nuestra es una pelea solitaria y muchas veces los hijos son los grandes paganos de esta situación. Hay chavales de 12 años que vienen a las reuniones. A veces, somos tan habilidosos que les intentamos poner contra la persona que bebe y los hijos necesitan ayuda para madurar.

¿En qué medida ha cambiado el perfil del enfermo?

Manuel: Ahora ya vienen hombres y mujeres en la misma proporción. Se ha equiparado.

“Alkoholak ez du irteerarik. Edate-ari utzi ezean, gartzelan, hilerrian edo psikiatrikoan amaituko du gaixoak”

“Inor ez da alkoholikoa nahi duelako. Bakoitza mundu bat da, baina alkoholismoak askotan nortasunari loturiko gabeziekin zerikusia du, lotsa, genio bizia, e.a.”

Beasaingo Alkoholiko anonimoak: 620 34 35 76

Beasaingo Al-Anon, alkoholikoen familien elkarte: 650 26 59 63

→ Egun borobila jubilatuentzat

Beasaingo jubilatutaldea antolatutako egun batean, Gipuzkoako mailan urtero egiten duten ibilaldi neurtua. Ekimenaren 20. urteurrena gurean ospatu zuten, joan den urriaren 16an. 600 lagun inguruk hartu zuten parte 7,5 km-ko ibilaldian eta gozatu ere ederki gozatu zuten. Eguna bazkari eder batekin borobildu zuten.



→ Beasaingo Paperetan, herriko mugak

Jose Zufiaurrek eta Joseba Alonsok Beasaingo mugen inguruan egindako lana argitaratuko da azaroko Beasaingo Paperak alean.



→ Beasaingo III. Mendi Astea, abian

Arrastaka eta Aitzkorri elkarrekin azaroak 8tik 14ra hitzaldi sorta bat eskainiko dute, eskaladako praktikekin amaiera emanez III. Mendi Astearen baitan antolatutako eskalada praktikekin amaitzeko. Besteak beste, Felipe Uriartek, Pedro Garciak eta Alberto Zerainek hartuko dute parte. (Ikus agenda)



→ Astigarretan, San Martin jaierako dena prest

Astigarretako auzo alkatea, Antonio Etxaniz, ilusioz beteta dago San Martin Jaia ospatzeko. Iaz 90 bat lagun bildu ziren bazkaritan, eta aurten ere esperantza horretan dago. Azaroaren 14an, meza nagusiarekin emango diote hasiera. Ondoren, Azurmendi eta Olasagasti izango dira aizkoran eta bazkalostean, Joxe Agirre eta Ekaitz Goikoetxea bertsotan eta Laja eta Landa-kanda soinua jotzen. Egun borobila!





Maria Luisa Arbea, Loly Lopo, Ramoni Azurmendi, Mari Paz Álvarez, Joxepi Jauregi eta María del Carmen Urbieta.

Asmube nació para que la mujer no siguiera arrinconada en casa. Dos décadas después, la mujer se ha incorporado al mercado de trabajo y se ha logrado la igualdad teórica. No la real. La crisis ha dejado en evidencia la situación de vulnerabilidad que vive la mujer, siendo el colectivo más azotado por la situación económica. Tras 20 años de lucha, Asmube sigue en pie de guerra. Por que siguen haciendo falta asociaciones de mujeres que trabajen en pro de la igualdad. El próximo 18 de noviembre, la asociación, que cuenta con más de 300 socias, celebrará su 20 aniversario en compañía de Emakunde e instituciones. No hay parón. Siguen.

“Gauzak aldatu baldin badira ere, emakumea etxetik atera arazteko sortu zen ASMUBE”

**25 de noviembre:
Día Internacional contra la violencia machista**

Concentración en la Plaza San Martín de Loinaz. A las 19:00 horas.

Talleres participativos de noviembre a febrero:

“De sujetos de tutela a derechos de ciudadanía”. 29 de noviembre

“Motivación e implicación. Los cimientos de la participación”.

“Comunicación interpersonal y grupal”

“Vías para el empoderamiento personal y colectivo. El reconocimiento y la toma de conciencia”

Azaroaren 18an, Igartza Jauregian, Asmube elkarteak azken 20 urte hauetako ibilbidea gogora ekarriko du, urteurrena ospatzearekin batera. Emakundek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Beasaingo Udalak eta herriko beste hainbat elkarte hartuko dute parte. Ez da lan makala azken bi hamarkada hauetan egindako lana. Emakumea etxetik aterarazteko asmoz sortu zen elkartea, artean lan munduan ez baitzuen gaur egungo presentzia. Urte hauetan gauzak erruz aldatu arren, emakumearen egoera sarritan ez da oso samurra. “Gero eta okerrago dago emakumea. Ikusi besterik ez dago krisiak zein erasotu duen gehien. Hobe litzateke emakume elkarteak soberan egotea baina ez da horrela. Baldintza berdinetan, desberdintasun handiak daude. Gaur, oraindik, gizonetzkoa lehenago kontratatzen da emakumezkoa baino”. Asmubeko kideen irudiko, amatasuna, esaterako, saritu beharrean, ez da ondo ikusten lan munduan. “Emakumea banantzeraz eramaten du sistema honek. Banandu eta irabaziko duzu, ba hori da egiten dena. Batasunak ematen du borrokatzeko gaitasuna”. Zailtasunak zailtasun, ez dute etsitzeko asmorik. Alabaina, partaidetza eskatzen dute, boluntariora ere krisian omen dago-eta. Bitartean, aisiaz gozatzeko hamaika ekintza antolatzen dute. Hala nola, yoga, pilates, aretoko dantzak, sabel-dantza, pintura, antzerkia, e.a. “Ikastaro batzuetarako hiru edo lau talde osatzen dira”. Halaber, partaidetza tailerrak eta hitzaldiak eskaintzen dituzte emakumearekin lotutako gaien inguruan. 20 urteren buruan, esku-bete lan dute eta ilusioz jarraituko dute, jende gaztea faltan botatzen badute ere. Bejondeizuela!



Beasaingo Emakumeen Elkartea
Asociación de Mujeres de Beasain

Esnea, bertakoa eta kalitatezkoa

Iztueta Azpikoa etxean argi dituzte gauzak. Baserriari bizirik eustea dute helburu eta horretarako sekulako buelta eman diote esne salmentari. Lazkaon eta Ordizian egin duten bezala, Beasainen ere aurki ipiniko dute esne makina bat, herritarrek eskura izan dezaten bertakoa eta kalitatezkoa den produktu bat. Marije Intsaustiri apur bat kosta zitzaion alaba Ainitze konbentzitzea baserrira bueltatu eta proiektu berriei heltzeko. Gaur, ordea, ilusioz begiratzen die proiektu berriei. “Ez da lana bakarrik, bizitzeko modu bat da”, diote.

Nondik ekarri duzue esne-makinen ideia?

Ainitze: Nafarroatik, hango Anitz herrian hasi ziren. Guk duela gutxi arte etxeko banaketa egiten genuen eta plastikozko poltsetan ere saltzen dugu esnea. Eta hau beste pauso bat da. Kalitatezko produktu natural bat eskaintzen dugu. Askok zaintzen dugu, esaterako, animalien elikadura.

Marije: Lau belaunaldi daramatzagu esnearen zuzeneko salmentarekin. Garai batean gurdietan eta zaldietan eramaten zuten esnea marmiritan. 1995ean hasi ginen poltsetan saltzen eta 2004an, berriaz, pasteurizatzen.

Inbertsioa eskatzen du guztiak honek.

Ainitze: Bai, handia. Gure helburua da baserria bizirik edukitzea eta erakustea ahal dela baserritik bizi salmenta zuzena eginez, bitartekorik gabe. Hemen, Euskal Herrian, ezin dira produkzio handiak egin, beraz, kalitatearekin lehiatu beharra dago, ez kantitatearekin.

Marije: Garbi dagoena da guk apustu hau egitea ez dela nahikoa, kaletarrek, kontsumitzaileek, ez badute erantzuten. Produktua nola egin badakigu, baina azkenengo urteetan saltzea ahaztu egin zaigu. Edo ekoiztera bultzatu gaituzte, salmenta alde batera utziz. Guk kate osoa geure esku hartu dugu: ganadua elikatu, behiak jetzi, kontsumitzailearengana jo... Eta jendeak nahi badu, etorri eta ikus dezake zer kontsumitzen duen.

Marije, alaba konbentzitzea asko kosta zitzaizun?

Marije: Apur bat. Baserri guztietan arazoa jarraipena da. Baserriak jarraituko badu, bizitza duin bat eskaintzeko gai izan behar du.

Ainitze: Gainera, azkenean, bizitzeko modu bat da.

“Ofrecemos un producto local, natural y de calidad. Cuidamos mucho por ejemplo, la alimentación del ganado”

“Está claro que nuestra apuesta sólo tiene sentido si tiene respuesta por parte del consumidor”



Marije Intsausti eta Ainitze Sala.



Fotomontajea.

Esne-makina, Barrendain plazan

Esne makina aitzakiatzat hartuta, Barrendain plaza “jantziko” duen proiektua landu dute Ipark-enpresako Eneko Plazaola eta Iñigo Imaz arkitektoek. Haien esanetan, “nolabait zerbitzu gune bat bilatu nahi izan da. Lehen bazeuden komunak eta ondoan, beste zerbait eraiki beharrean esne-makinarentzat, estetikoki beste irteera bat ematen ahalegindu gara”. Zerbitzu horiek integratuta geratu dira, fotomontajearen ikusi daitekeen moduan.

Komunentzat eta esne-makinarentzat egokitutako kaxa moduko moduluak gain, aterpetxo bat ere eraikiko da. Halaber, gaur argitu egingo dute gunea, kristalezko ekipamenduak izaki, argiak eramango dituztelako.

[Beasain]
egunez egun

Aitzakiarik ez aspertzeko

Los peques están de enhorabuena. Beasain acaba de trasladar la Ludoteca Berritsu a los bajos de la Plaza San Martín de Loinaz. Los niños lo han estrenado jugando y disfrutando a tope. Pero además Beasain cuenta con otra Ludoteca en el barrio Ezkiaga para las niñas y niños de entre 4 y 12 años y un Gazteleku para los jóvenes de entre 13 y 17 años. En todos los centros los educadores de la Asociación Aisihezi, que se encarga de gestionarlos, se preocupan, y mucho, de educar en valores a los usuarios a través del juego. Aprenden a compartir, a aportar, a sugerir, a desprenderse de lo material y a disfrutar en compañía.

Mugimendurik ez da falta Ludoteketan eta Gaztelekuan. Azken honetatik, arratsalde batean 50 gaztetxo inguru pasa ohi dira. Berritsu Ludotekan, beriz, 76 haur daude bazkidetuta. Txelotxe da haur gutxien hartzen dituen gunea, auzo batean kokatzen delako eta ez erdigunean. Denetan aisia eta heziketa eskutik doaz. "Aisialdi hezitzailea eskaintzen da. Ludoteketan hilabetero berritzen dugu egitaraua eta beti gai zehatzen batekin lotuta egoten da. Urrian, adibidez, "udazkena eta natura" aukeratu dugu eta horri lotutako lan edo ekintzak egin ditugu". Jolasaren bitartez, taldean jolasten, konpartitzen ikasten dute haurrek. Hezitzaileak saiatzen dira gauza gutxiarekin oso ondo pasa daitekeela erakusten edota haur eta gaztetxoek inplikazioa lortzen. "Sukaldaritza lantegi bat egin behar badugu, ba izan daitezela beraiek erosketak egiten dituztenak edo beste zerbait behar bada, saia daitezela lortzen. Gaur egun, dena eginda ematen zaigu, eta hemen bestela jokatzeko ahalegintzen gara, bestela gauza guztiek garrantzia galtzen dute". Edonola ere, Aisihezi elkarteak kideek esku-bete ideia dituzte zerbitzua egune-



tik egunera hobetzeko. "Aurten, Ludotekako gurasoei zuzenduta, "Guraso Txokoa" jarri nahi dugu martxan datorren martxoan. Bestalde, Ludoteka Ibiltaria antolatuko dugu urtean bitan lgartza auzoan eta jostailu mailegutza ere martxan jarriko dugu urtariletik aurrera. Alegia, Ludotekako jostailuak etxera eramateko aukera izango dute. Beste proiektuetako bat jostailu trukerako azoka egitea da. Hori abenduan izango da. Gabonei begira, opariak trukatu ahal izango dituzte".

berritsuludo@hotmail.com
txelotxeludo@hotmail.com
eizugazteleku@hotmail.com

Alberto García

"Gustatzen zait Ludotekara etortzea eskolatik ateratakoan".

1



Karlos Sanchez, Andoni Escalona, Joar Urrestarazu eta Fran Rodríguez

"Ondo dago Gaztelekua baina iaz bi mahai-futbol zeuden eta aurten, bakarra. Txapelketa gehiago antolatu beharko lirateke. Egia da zer ekintza egitea nahiko genukeen galdetzen digutela, baina torneoak ez ditugu nahi adina egiten".

2



Ibai Barandiaran eta Oihane Urkia

"Denbora gehien koltxonetetan eramaten dugu edo txinpartagailuarekin jolasten. Eskolara joatea baino gehiago gustatzen zaigu hona etortzea. Marrazten ere aritzen gara".


3



Andoni Mikelarena eta Mikel Insausti

"Aurreko urtean Gaztelekua hobeto zegoen. Aurten asanbladak antolatzen dituzte eta ez zaizkigu gustatzen. Jolastera etorri nahi dugu eta tartean behin ekintzak ondo daude, baina beti ez. Astero ekintza bat, gehiegi da. Eta material berria behar da. Gainontzean, ondo pasatzen dugu. Gertatzen dena da jendea asko baldin badago, itxarotea tokatzen dela ba ping-pongean edo mahai-futbolekin jolasteko".

4



Sergio Bermejo, Maria Lazkano, Mari Sol Gimenez, Miren Fernandez, Lea Anamer eta Eneko Cerezo

"Egunero etortzen gara. Oso pozik, gainera. Gehienoi gehiena txilipurdien txokoa gustatzen zaigu".

5



Santi Cerezo, Sonia Reyes y Ane

"Nuestro hijo Eneko ha empezado este año a venir a la Ludoteca y el crío viene encantado. Lo que sí nos ha pasado dos veces, dos miércoles, es que para algunas actividades limitan la edad a cinco años, para el cuentacuentos, por ejemplo, y como Eneko tiene siete, no ha podido participar y se ha quedado fuera. No sé cómo habrá funcionado otros años. Por lo demás, el sitio está muy bien, todo nuevo..."

6

